



HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

2025eko maiatzaren 6ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko maiatzaren seian arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

Presente ziren: CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Ezin etorriak: AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, IDIART Claudine

Saioko idazkaria: DACHAGUER Peio

Deialdiaren data: 2025eko maiatzaren 2a

Afixatze data: 2025eko maiatzaren 2a

4. ERABAKIA: INGURUNEA ZEDARRITZEKO EREMU BATEN SORTZEA **SAN JULIAN ELIZAREN INGURUAN** *(2.2 nomenklatura)*

2021eko ekainaren 19ko Euskal Hirigune Elkargoko batzorde nagusiak erabaki bezala, Baxe Nafarroa Hegoaldeko herri arteko hirigintza plana osatzerakoan frantses estatuko zerbitzuek igorri Ezagutarazteko Dokumentuan Euskal Elkargoari eskatzen zioten Monumentu Historikoen inguruko zedarritze eremuak ezartzea, lurraldearen antolamendua eta ondarearen geriza etorkizuneko hTHP-n uztartuak izan daitezen.

Baxe Nafarroa Hegoaldeko hTHPk 61 monumentu historiko biltzen ditu, zeinek 500 metroko geriza eremua baitute inguruan. Eremu horretan hirigintza baimen eskaera orok Frantziako Eraikinen Arkitektoaren oniritzia behar du, Frantziako Ondarearen Kodeko L 621-32 artikulua agintzen duenaren arabera:

- Oniritzi arautua, baldin eta lanak eginen diren lekuaren eta Monumentu historikoren artean elkar ikusgarritasunik bada,
- Oniritzi sinplea beste kasuetan.

Frantziako Ondarearen kodeko L 621-30 artikuluan jasotzen diren Inguruneak Zedarritzeko Eremuek automatikoki aplikatzen ziren 500 metroak ordeztuko xedea dute. Landa ikerketa baten ondotik osaturik, IZEak Monumentu Historikoaren ingurunearen arabera marrazten dira (topografia, hirigune ehunaren kalitatea eta koherentzia, paisaia-kalitatea, ikuspegiak) eta egiazko ondare jokagaitara mugatzen dira. Honela, eremu berri hauetan, hirigintza eskaera orok Frantziako Eraikinen Arkitektoaren oniritzi arautua behar du, elkar ikusgarritasunaren irizpiderik gabe.

Baxe Nafarroa Hegoaldeko hTHP-ren eremuan urraspide berri honetan sar litezkeen hamar bat monumentu identifikatu dira, Frantziako Eraikinen Arkitektoarekin eta Euskal Elkargoarekin, .

Horien artean San Julian eliza dugu, 2014ko apirilaren 18an Monumentu Historiko sailkatua izan zena.

Herriak urraspide horretan sartzeko interesa adierazi du. Izan ere, lanketa horri esker elizaren inguruko egiazko ondare jokagaiak ezagutuko genituzke eta Frantziako Eraikinen Arkitektoaren iritzia definituko diren eremuetara mugatuko litzateke.

2025eko martxoan, Euskal Elkargoak kontratatu zuen Lavigne Tailerrak landa lan bat eraman du geriza eremuaren proposamena eginez, Auzapeza, herriko hautetsiak eta Frantziako Eraikinen Arkitektoa hor zirelarik.

Elizaren geriza eremuaren proposamenak honako elementuak ditu:

- herriaren itxura elizaren eta haren ezquila dorrearen nagusitasunarekin;
- elizarekin lotura zuzena duen herri erdigunea eta honen etorkizuneko hedapenak, zeinek eragina izanen baitute herriaren itxuran;
- herrian historikoki izan diren laborantza jardueri loturiko larreak hegoaldean, elizako ezquila dorrearen eta burualdearen ikuspegi ederrenak ematen dituztenak;

Frantziako ondarearen kodeko R. 621-93 artikulua arabera, proposamena lehenik herriari aurkeztu behar zaio, iritzia eman dezan, elkargoko batzorde nagusiak bere onespina eman baino lehen, Baxe Nafarroa Hegoaldeko hHTP proiektua onartuko den aldi berean:

«Eskumena duen aginteko organo erabakitzaileak inguruneak zedarritzeko eremu proiektuari buruzko erabakia hartzen du herri arteko hirigintza plana onesten duen aldi berean, hirigintza kodeko L. 153-14 artikulua hala xedaturik, hala balitz herria edo herriak kontsultatu eta gero. » (Ondarearen Kodeko R 621-93 artikuluarne erauzkina)

Herriak bere iritzia emanik, eta Frantziako Eraikinen Arkitektoaren eta Batzorde Nagusiaren onespinen baldintzapean, inguruneen zedarritzeko eremu proposamena inkesta publikora eramane da Baxe Nafarroa Hegoaldeko hTHPri buruzko inkestarekin batera. Gero Eskualdeko Prefetak ordenantza bidez du inguruneen zedarritzeko eremua (IZE) sortuko.

IZE Baliagarritasun Publikoko Eskubidea da. HTHP-ri erantsiko zaio eta ordura arte indarrean zen 500 metroko erradioa ordeztuko du.

IKUSIRIK, Frantziako Ingurumen Kodeko L.621-30 - L.621-32 eta R.621-92 - R.621-95 artikulua monumentu historikoen inguruneen zaintzeari buruzkoak;

IKUSIRIK, Ortzaizeko San Julian eliza Monumentu Historikoen artean sailkatzeko 2014ko apirilaren 18ko ordenantza;

IKUSIRIK, Pirinio Atlantikoetako Prefekturaren 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-01 ordenantza, Euskal Hirigune Elkargoaren sortzeari buruzkoa eta besteak beste elkargoaren eskumenak zehazten dituenak;

IKUSIRIK, 2021eko ekainaren 19ko Euskal Hirigune Elkargoko Batzorde Nagusiaren erabakia, Baxe Nafarroa Hegoaldeko hTHPri buruzkoa;

IKUSIRIK, Euskal Elkargoak 2025eko apirilaren 16an Ortzaize herriari egin galdera San Julian elizaren inguruan inguruneen zedarritzeko eremu baten ezartzeari buruzkoa;

Kontuan izanik, badela interesa Ortzaizeko San Julian elizaren inguruan, 2014ko apirilaren 18an monumentu historiko sailkatua, inguruneen zedarritzeko eremu (IZE) baten sortzeko,

Deliberaturik, eta aitzinekoak ikusirik, Herriko Kontseiluak:

- ONIRITZIA ematen dio San Julian elizaren inguruan inguruneen zedarritzeko eremu (IZE) baten sortzeari, honako erabakiari erantsia zaion bezala,

Eranskina:

San Julian elizaren inguruan Inguruneen Zedarritzeko Eremuaren txostena

Jardunean diren kideak: 15

Presente zirenak: 12

Adierazi diren bozkak: 12

ALDE: 12

KONTRA: 0

ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko maiatzaren 6an

Auzapeza:

Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,
2025eko maiatzaren 12an argitaratu edo jakinarazi ondotik
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.